



**GoitB
emititzen
hasi da**

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Goitb
Goiena Telebista

**Elgetako udaletxeak
baietza Goienari**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Maya ingurugiro taldearen berriak

Ale honetatik aurrera herriari gure berri ematea nahi dugu. Alde betetik egin ditugun ekintzak aipatu eta bestetik gure asmoak eta nahiak zeintzuk diren azalduz.

Udaletxeko hirigintza eta ingurugiro batzordean partaide gara entzule eta herrian ikusten dugun beharren berri emaile moduan, botorik gabe. Gure eskakizunen artean honako hauek aipatuko ditugu.

- Telefono mugikorren antenak Azkonabitzen koka daitezela, eskakizun hau Gobernu Batzordean onartu zen, helburu bat lortuta.

- Tailer guztiak industrialdean, Artekalen beste industrialderik sortu gabe.

- San Roke osteko belar gunea mantentzeko kotxeen sarrera galeraztea, sarri askotan, eguraldi ona denean batez ere, bertan aparkaturik egoten baitira.

- Aixola presarako bidean motordun ibilgailuei pasabidea mugatzea, bertakoak kalitetu gabe.

- Herriko hainbat bazterretan botatzen diren eskonbroak kontrolatu eta galeraztea, Mankomunitateak Angiozarraren ipinita baitu horretarako gunea.

Orain arte eskatutako berri aditzera eman dizuegu.

Gure ekintzen artean, Kultura eta Ingurugiroari buruzko hitzaldia antolatu genuen Liburutegian. Bera arrakastatsua izan zen eta elkarriketa polita sortu zen.

Euskal Herrian sortu den "Lurra, gure amaren etxea defenditu" proiektorean berri izan genuen eta bertako ekintzetara hurbildu izan gara parte hartuaz. Proiektu honi buruz gehiago jakin nahi duenak herriko hainbat tokitan aurki dezake.

Gure asmo eta nahien artean berriz, jaietako programa barruan Mendi Ibi-ladia antolatuko dugu, herriko inguruak ezagutzuz, ondoren bazkari "alternatiboa" ospatuko da.

Jaien barruan, azoka egunean, gure gozogintza tradizionaleko produktuak salduko ditugu postu batetan. Bertan ere "rifak" salgai izango ditugu gure ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

Zenbaki bakoitzarean ingurugiroari buruzko aholku bat ematen saiatuko gara, hona hemen oraingoa:

Zaborra murrizteko aholkuak:

Erosketen poltsa etxetik eraman. Behar dena bakarrik erosi. Behin eta berriz erabili daitezkeen produktuak erosi, behin erabili eta botatzekoan ordez.

Produktuak aukeratzekoan hautatu ahalik eta plastikoa, paper... gutxien dutenak.

Gauza asko zaborretara bota aurretik BERRERABILI.

Eta azkenik bota behar baldin bada tokatzen zaion kontenedorera bota BIRZIKLATZEKO.

Maya ingurugiro taldea

Eskerrik asko danoi!

Goibekokale aldizkariak ematen digun aukera aprobetxatuz eskerrak eman nahi dizkizuegu hainbat ekintza aurrera eramaten dituzten pertsoneri: dantza taldekoei, katekisteei, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen dutenei, denbora librekoiei... Beraien borondate onari esker hainbat ekintza aurrera eramaten dira. Betse batzuk berriz galduta zeuden eta berpiztu egin dituzte.

Haiei esker gure seme-alabek guzti horietan parte har dezakete (ongi pasatu, arauak ikasi, elkarren arteko harremanak sendotu...).

Guztietan mila esker.

Guraso batzuk

Euskal presoen eskubideen defentsan!

Euskal Herria bere historiaren unerik zail zein garrantzitsuenetariko bat bizitzen ari da. Egun, herri gisa gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki ahal izatea dago jokoan, kanpoko inposaketa eta eskuhartzerik gabe.

Euskal gizartearen gehiengoak euskal presoen pairatzen duten egoera ezgizatiarra jasanezina dela sarritan adierazi du, euskal herri-raztearen aldeko jarrera hartuaz. Milaka mobilizazio, gose grebak, baraualdiak, manifestaldiak, elkartzun ekintza baketsuak... Baina hala ere, egoera ez da hobetu, alderantziz gero eta jasanezina goa bihurtzen ari da kartzelako egoera, presoentzat

zein eurek bisitatzen milaka kilometro egin eta milaka peseta gastatu behar duten senide eta laguntzat, askotan bizitza ere errepidetan utzia.

Eta Zein da guzti honen arrazoia? Nor dago gaur egun euskal presoak Euskal Herriaraztearen aurka? Nor dago egun, dituzten oinarriko eskubideak errespetaraztearen aurka? Gutxiengo bat, gutxiengo negargarri bat.

Nola konponduko ditugu euskaldunok gure arazoak, gehiengoaren nahia errespetarazteko gai ez bagara? Nola lortuko dugu bake eta demokrazian oinarrituriko eszenatoki bat, gutxiengo batek muzin egiten badio gehiengoaren borondateari?.

Beraz, herri oso baten duintasuna da jokoan dagoena, Euskal Herri osorako bake eta askatasunean oinarrituriko etorkizuna.

Ezin dugu egoera hau iraunarazten utzi. Euskal presoen kolektiboak galdera garbi eta argia egin digu guztiok: Zu zer egiteko prest zaude euskal presoen eskubideak, eta beraiekin bat, Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetarazteko?

Ez dago aitzakiarik. Ez dago epelkerietarako tokirik. Euskal Herriaren hitza eta erabakia defendatu behar dugu.

Eta zuk, Zer egingo duzu?

Presoen aldeko plataforma



ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



Empresa Registrada

BR-01142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Giza Eskubideak

1 548. urtean Nazio Batuen Erakundeak Parisen lege adierazpenak onartu zituen. 30. atale-

tan gizakiaren eskubide guztiak fikatu ziren, hala nola:

(2. atala)- "gizaki orok du adierazpen eta askatasun eskubidea eta ez zaio inólako bereizketa politiko, arrazakorik, sexuzkorik, ... egingo".

Horrelako lege ugari ezarri ziren bere garaian baina tamalez ez dira betetzen. Euskal Herian honen adibide garrantzitsu ugari ditugu. Batetik, "Egin" egunkaria itxi zituzteneko arrazoiak. Egunkari honi bere adierazpenak egitea edo azaltzea inposatu zitzaion. Lege hauen arabera, gizaki orok du ADIERAZPEN ASKATA-SUNA. Beraz, zergaitik inposatu zitzaion? Debatu zietenek bestelako legeak al dituzte? Bera hauek ez dira gizakiak...

Bestetik, EUSKAL PRESOKAK ere hor daude. Giltzapetuak lau hormen barruan, bakardadea lagun dutelarik. Beraien senideengandik urruti eta etsai batzuekin nahasi elkarbizitzen. Hauei ere beraien eskubideak inposatu zaizkie boteredun gutxi batzuk horrela nahi izan dutelako.

Nik behintzat, beti aldaratu izan dut egoera hau amets beltz eta krudel baten gisaran.

"Gu, lege hauek ez ditugun gizakiak, kaxa baten barruan giltzapetuak gaude (izango bagina bezela sentitzen naiz). Giltzadunak botere politikoa duten gutxi batzuek direlarik, giltzekin, hau da, legeekin nahi duten bezela jokatzin dute. Une batzuetan hartu eta kaxa irekiz ASKATASUNA ematen digute eta hurrengo itxi eta IREKITZEAZ ahazten dira".

Argi eta garbi ikus daiteke lege horiek gizaki ororentzat jarriak ez direla. Gutxi batzuek beraiekin nahi duten bezala jokatzin badute guk zergaitik ez? Zer egin behar dugu? Horrela jarraitu?

Iratxe Uzuriaga



Zarauztar bat Elgetan

OM akina bat aldiz esan izan didate, zelan zarauztar bat

Elgetan edo eta ze aldaketa Zarauztik Elgetara. Garbi dago aldaketa izugarria dela. Itsas ertzean hazi eta bizitako pertsona bat barrukaldean kokatzen denean, zerbat galtzen du bapatean. Itsasoa ikusi nahi izean eta ezin izatea, pena da. Nahiz eta denborarekin ohitu.

Itsas ertzak bizi izan ditu testigu bezala nere gazte denborako momentu onenak, okerre-nak, tristenak, eta alaiak. Itsas ertzak badu momentu horiek bizitzeko puntu berezia. Baditu baita ere, bere sentimenduak, eta ikusi besterik ez dago egunero zelan umore desberdinarekin esnatzen den, beste pertsona bat izango balitza bezalaxe.

Orain legorreen bizi naizenez gero, eta nire ustez inguru ederrean Elgetarako epe laburrean zer nahiko nukeen adierazten saiatuko naiz. Elgeta, mendkio herria izan arren, ez da esparru berderik herrian. Nire ustez, beharrezkoa da horrelako inguru bat integratzea herri barruan, Denon eskura egn beharko lukeen inguru bat, aldaparik gabe, autoa hartu beharra izan gabe, bertako zahar, gazte eta helduak lasai, irakurtzen edo egonean besterik gabe egoteko. Zoragarria izango litzateke, era berean, pasiatzeo leku aproposa edukitzea, arratsaldeko seiterdietan ilun egon arren, aprutzxo bat ibiltzeko aukera izan dezagun. Hau badakit zaila dela, baina beno, zeinek daki, agian urte batzuetara...

Entzun dut, polikiroldegi inguruan parketxoren bat egiteko asmoa dagoela. Ea epe laburrean gotzeko aukera dugun. AH! eta bide batzez, Getariako arratoiaren replika txiki bat jartzen badugu bertan, MUNDIALA LITZATE-KE!!

Benito Campos

kutxa gizarte-ekintza obra social



Eusko Jurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea



Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

GOJBKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrozola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Ekainak 4an Asentzio Eguna

Asentzio bezperan JOXE RIPIAU taldearen kontzertua

Duela bost urte herriko gazteek Asentzioko Eguna berreskuratu dute. Ekainak 4an, domeka, potzu ondoko pagadi eta zelaia trikiti doinu eta dantzaz alaitzeko egitarau aproposa antolatuta dute Gaztetxeok.

Aurten bost urte beteko dira herriko gazteek Asentzio Eguneko erromeria berreskuratzeko saiakera egin zutenetik. Bost urte hauetan hainbat ekintza izan ditugu erromeria ospatzeko. Herriko txapeldunaren finaletik hasi, gazte eta nagusiagoen arteko desafioekin jarraitu eta eguraldi on eta kaskarra kontutan hartu barik bertako eta inguruko dantzarien erakustaldiak izan ditugu urtero. Aurten ere Asentzio girotzeko programa polita aurketu digite

herriko gazteek.

Hasteko ekainak 3an Asentzio bezpera JOXE RIPIAU taldearen kontzertua izango dugu Gaztetxean. Karibeko musika eta Ska doinuak nahasten dituen talde famatuarekin, adin guztietako jendearentzat festa izango da Gaztetxean gaueko 23:00etatik aurrera.

Ekainak 4an Asentzio Eguna

Ekainak 4an Asentziara urteroko bisitatxoa egiteko ekitaldi ugari antolatuta dira. Goiz goizetik herriko gazteek dena prest edukitzea espero dute. Hauxe duzue programat

- 10:30etan Arrantza txapelketa. Izen ematea bertan izango da.
- 11:00etan Herriko trikitilarien kalejira herriko



Dantzak, bazkaria, arrantza... denetik izango dugu Asentzion

kaleetan.

- 11:30etan Salda eta txorixoa Gure Bordan.
- 12:00etan Meza.
- Meza ondoren: Elgetako Dantzariak, Bergarako Moises Azpiazu dantza taldekoak eta Larrain Dantza.
- 14:30etan Bazkaria. Txartelak saltzen daude

herriko tabernatan.

- 16:30etan erromeria BIGIRA taldekoekin.
- 18:00etan Asentzio Eguneko errifaren zozketa.

Asentzio Egun borobila izateko eguraldiak laguntzea bakarrik geratzen da. Ondo ondo pasatu.



Bazkaria sukaldarixen parekua da beti, goxua eta edarra

Txalapartaren soinuak ez dira faltako, aintzinako sorginak gogoratu ditzagun



*Aintzane denda
zugandik gertu
behar duzun
beste*



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

210.342.000 milioiko aurrekontua

Alderdi biek baietz esan diote 2.000.urteko aurrekontuei

Maiatzak 15eko plenoan EAJk eta EHk baietza eman zieten aurtengo aurrekontuei. Aurrekontua iaz baino 15 milioi gehiago izango da. Inbertsio garrantzitsuenak, ekintza askotarako gela, mendi nekazaritzako proiektua, hirigintza planen egitasmoa, industrialdeko 4. esparrua urbanizazioa eta haurren parkea izango dira.

Dagoeneko onartu da Udaletxeak 2.000.urterako izango duen aurrekontua. Aurrekontua 210.342.000 pta.

takoa izango da. Iaz baino 15 milioi gehiagokoa, Udalak aurrera eramateko asmoa daukan proiektuetatik hauek dira aurrekontuetan kopuru handiena dutenak: Ekintza askotarako gelako lanak aurrera eramateko 32 milioi izendatu ditu, mendi nekazaritzako proiektuak aurrera eramateko 6.188.600 pta. erabiliko dira, industrialdeko 4. esparrua urbanizatzeko 26 milioi eta polikiroldegian haurren jolas parkea osatzeko 2.300.000 pta.

Batzorde bakoitzak izango duen aurrekontua langile, eraikuntzen mantenimendu eta inbertsio gastu guztiak kontutan hartuta:

- Ongizate eta osasuneko batzordeak 429.475 pta
- Irakaskuntzak 5.76.363
- Etxebizitza eta urbanismo batzordeak 16.895.228
- Kulturako batzordeak 49.505.386
- Kirolen batzordeak 6.201.942
- Jaiak eta euskera 5.608.808

Sarrerei dagokienez Udaletxeko aurrekontuaren zati garrantzitsuenak Diputazioetik lortuko dute, 74.582.041 pta. tako partida izango da. Zergak ere aurrekontuaren sarreretan garrantzi handia izango dute 66.357.325 pta. izango da, Udaletxeak zergetatik aterako duen dirua.

Orain aurrekontuetan onartutakoa aurrera eramatea besterik ez da geratzen.

Ekainak 3an entseiu orokorra

Ekainak 3an zapatua, arratsaldeko 17:00etan jaietako tanborradan parte hartu behar duten guztiek entseiu generala izango dute. Danbor eta kupelak nahiko astindu eta gero, partaide bakoitzari tanborradan eraman beharko duen jantzia utziko zaio.

Jaiekin jarraituz aipatu Gaztetxek ere lotu dituztela aurten jaietan izango diren kontzertuak:

Eguenean Las Ratas (Kanariarrak) eta Hyssopus (Berriztarrak) taldeen kontzertua izango da. Barikurako berriz Eraso eta Anestesiaren doinuak izango dira entzungai. Zapatuan Eibartik Kafha ete EH Sukarra taldeak gerturatuko dira. Aipatu bariku eta zapatuan kontzertuak Gaztetxe alboko lautadan izango direla.



Tanbor eta kupelei hotsa atereaz gustora dabilta tanborradako partaideak

Kopu bat

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

P a t x i Taberna

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA JATETXEA

tel: 768284

Txotxongiloak ikusgai elizpean

Bergarako "Txotxongiloen Mostraren" egitarauaren barruan aurten ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izan dugu Angiozarren. Maiatzaren 19an eduki genuen "Plansjet" taldea bere ikuskizun asper ezinarekin. Elkarren atzetik hamar bat istorio antzeztu zituzten hainbat pertsonaia desberdin aurkeztuz: musikoak, dantzariak, abadia eta hildakoa, San Anton eta txerria, San Migel,... bukatu ezin ahala pertsonaia.

Jendea oso gustura gelditu zen eta baita flandriar titiriteroak ere, bukaeran emanaldia burutu zuten elizpea eta bertan sortu zen familiarteko giro atsegina aitatu zituzten eta. Hurrengorako maila goian laga dute eta jendea gogoz gelditu da berriz halako emanaldietarako.



Txotxongilo emanaldia elizpean.



Goimendiarrak berritutako San Migel elizaren aurrean.

San Migel Monte berritua

Pasa den maiatzaren zazpian ospatu zuten goimendiarrak eta ingurutakoek aurtengo San Migel Monte eguna. Mezarekin eta bukaeran dantzatu zen aurrekuarekin inauguratuta gelditu zen eliza Denen esanetan oso apain eta txukun gelditu da eta egindako ahaleginak merezi izan du.



Ezkerretik eskumara, : Angel, Jone eta Maitane.

Lehen Jaunartzeak

Hilaren 21ean Lehen Jaunartzeak egin ziren Angiozarko San Migel Goiaingeruaren Parrokian. Angel Ganbra, Jone Larrañaga eta Maitane Garai izan dira aurtengoan "formalitate" bidetik abiatu direnak. Meza ostean etxeko eta beste familiartekoekin ospatu zuten emandako urratsa. Zorionak!!

Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioa Hendaia-Irunen.

Maiatzaren 20an egin zen Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestaziora hainbat angiozartar hurbildu ziren azken urteotan zintzilik daukagun lan erraldoi hau atzera bota dezaten eskatzeko asmoz. Manifestazioa Hendaian hasi eta Irunen bukatu zen muga alde bietako taldeen batasuna irudikatuz sentsibilizazio prozesu honetan. Ez zen inongo arazorik egon eta manifestu bat irakurri bukatu zen Irunen, aurrez esan bezala.

Eskola Txikien Egunean parte hartzeko deia

Datorren ekainaren 11ean, igandea, Alkizan ospatuko da "Eskola Txikien Eguna" Gipuzkoako hainbat herrietako eskolek antolatuta eta bertaratu eta parte hartzeko deia zabaldu digute herritar guztioi.

Aukera ederra izaten egun hau Angiozar bezalako herri txikietako egoera bizi dute beste herri batzuk ezagutu eta han asmatu duten irtenbideez jabetzeko. Datorren urtean Angiozarren ospatzeko asmoa dago egun hau eta antolaketaz ere zerbait ikasi behar dugu, beraz, badakizue, datorren ekainaren 11an denok Alkizara!!

Lehiaketa





Elgetan egindako prozeziñua zan aurreko Goibekokaleko lehiaketa atal- lian emon bihar zan erantzuna. Izugarri politta izan zan prozeziñua eta ez dakigu Pello Bilbaok ikusteko auke- ria izan zeban edo ez, baiña erretra- tuan, borroso xamar egon arren berak argi euki dau. Zer zan jakiñ eta Goibekokalera idaztearren, berak eruango dittu pare bat kamiseta.

Idatzi dozuen gaiñontzequon- dako esan biharra dakagu kamisetak akabatzen darela eta hori kamiseta ele- gantioi bihar badozue idatzi besteik ez dakazuela. Ia zorte piskatekin zure kartia aukeratua dan eta kamisetok etxeratzeko modua egitten dozun.

Oingo zenbakiko erantzuna asmatzeko ez goiaz pistaik be emotera. Oso erreza da. Zeintzuk dira? Oso famoso egin dan laukote bat da, zara- tatsua.

Erantzunak bialdu Goibekokalera, Salbador kaleko biga- rrenian gare, kultura etxian. Eposta erabili gura izan ezkeru hauxe da zuzenbidia: goibeko@topagunea.com.



Jgorren Komikia

Goibekokale 57.zk

Azken aldixan hainbeste lan istripu dirala eta zer uste dozu pasatzen dala?



Eneida Elorriaga
Bihargiña (25 urte)

Orokorrian zeozer egiñ bihar dala uste dot. Bai enpresariuak, bai langilliak bixen aldetik neurrixak ipintzia dala uste dot soluziñua. Enpresariuak erraztu egiñ bihar leuke eta langilliak be jarri egiñ bihar leuke bere aldetik piskat gehixau.

Ez dot uste prebenziñoik dagonik eta zerbait pasatu eta gero, orduan hartzen dittue neurrixak. Gaiñera hartzen diran neurrixak be oso urrixak dira.

Oihana Sarasua
Bihargiña (17 urte)



Jose Luis Zabaleña
Bihargiña (45 urte)

Neretako segun ze lanetarako ez da erreza lan istripuak prebenitzia. Adibidez, grua gaiñian dabillenantzako ez da erreza soka batekin lotuta egotia. Baiña, enpresetan dabizenek behintzat gehixau zaindu biharko zirala uste dot. Askotan gehixegi begiratzen jako produkziñuai eta gutxi geure buruai.




Aitzane Gallastegi
Bihargiña (28 urte)

Uste dot enpresa aldetik neurri gehixau hartu biharko zala, gaiñera segun eta ze lan dan ondiokan be neurri haundixauak hartu biharko littukie. Lana ikusitta neurri desberdiñak hartu biharko litzakez.

Nik uste dot gai honetan langilletik hasita, delegauek eta baita sindikatuek be ardura gutxi dakela. Uste dot danek berba egin biharko zebela arazo honen aurrian zeozer egitteko. Gure taillerrian adibidez, biga bat jausi zan arte ez da ezer egiñ, eta hortik aurrera danak kaskuakin hasi giñan. zeozer pasau arte ez da sekula ezer egitten.

Luis Atorrasagasti
Bihargiña (30 urte)



Neretako neurrixak hatzen dira, baiña ez dira nahikuak. Uste dot inportantzia gehixau emon bihar jakuela lan istripuei, bai enpresa aldetik eta baita langillian aldetik be.

Pello Ojangueren
Bihargiña (46 urte)



IBAIBA-RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E HARATEGIA
AST

San Roke 6
tel: 768168.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 948 78 90 21 20690 ELGETA

ARIES: Musika desberdinak entzutiak ez jotzak/jotzan iñoi kalteik egitten, eta hiri gutxiau.

TAURUS: Argi ibilli hadi alkoholemia kontrolekin! Jakingo dok/don azkenengoz aldatu egin debela alkoholan neurria, ezta?

GEMINI: Kurtsua amaitzen, oporrak usaintzen eta umoria hobetzen...holaxe balitaz urte osuan? Umoria diñot!

CANCER: Maiatzeko euzki apurrak baltzitu habela eta harrotuta? Edozeinek aguantauko jok/jon hau uda osuan zihar!

LEO: Telebistako lelokerixa danak tragatzen dittuk/dittun. Hori dok/don interesatzen jatan/janan dana?

VIRGO: Baiñujantzixakin akordau orduko, uliak be tente ifintzen jatagak/jatazan. Hi lasai, hire edertasuna danian argitzen dok/don.

LIBRA: Hain tente fateko makillan bat edo ifiñi dok/don ala bestela zer? Hori dok/don muzturra goixan eruatia.

ESCORPIUS: Ez dok/don gauza askoik bihar pozik egoteko: etxia, autua, bihar ona, biaje ederra...

SAGITARIUS: Ezin dok/don geldi egon segundu batian? Txindurritz beteta hago-la emoten jok/jon.

CAPRICORNIUS: Dendatik dendara ibiltzia gustokua dozula ez dago dudaik. Baiña, eta dirua nundik?

LIBRA: Hain tente fateko makillan bat edo ifiñi dok/don ala bestela zer? Hori dok/don muzturra goixan eruatia.

PISCIS: Begirakuna tristia dakak/dakan. Biharbada ez dakak/dakan ametsik egittek ezta iñoi kontatzeko be. Zabaldur begixok eta begiratu bizimoduai aurrez-aurre.

Jon Sarasketa (41 urte) Bihargiña.

Zer egitten dozu zure lanian?
Tornilluak.

Zenbat langile dakaz enpresiak?
23 bat langile.

Zer egitten dozu lanetik irten-dakuan? Seirak eta hamarreko autobusa hartzen dot Bergaran.
Zer gustatzen jatzu gehixau, futbitua ala pelotia? Gehixen pelotia.

Zeñek irabazi bihar dau zuretako futbito txapelketia? Txapela taldiak.

Zeintzuk dira zuretako Elgetako pelotaririk onenak? Xabi, Eñaut eta Aitor.

Zer ordutan jaikitzen zara lanera juateko? Zazpirak eta bostian.

Nobixaik badakazu? Nobixaik ez baiña pare bat lagun bai.

Zenbat juaten zarie Elgetatik lanera? Bi, ni eta Azkarate.

Zer gustatzen jatzu gehixen telebistatik?

Dokumentalak, pelikulak...jeneralian danetik ikusten dot.

Etxeko lanak egitten laguntzen dozu? Bai, zeozer.

Zer gustatzen jatzu gehixen jateko? Ensaladia kipuliakin eta bokadilluak bai txorixuana, bai urdaiazpikuana.

Zer gustatzen jatzu gehixau katuak ala usuak? Gehixau, usuak.

Zenbat aldiz juaten zara mezetara? Bakarrik domeketan.

Noiz da zure eguna?
Abenduak 17.

Zer egitten dozu zure denbora librian? Pasiau eta egunkarixa irakurri.

Zezenan atzetik ala txarangian atzetik gustatzen jatzu juatia?
Txarangian atzetik zezenak ikustia gustatzen jata.

Zer erregalauko zontzake zure lagun on bati? Pulsera bat.

Gustauko lejjatzuke frontoiko markadorian egotia? Segun, Juan Luissek zer esaten zeban.

Txapelan partidu bat ala Estampaciones Elgetana?

Saskibaloia nahixau dot.

Elegante jantzitta gustatzen jatzu juatia? Ez, neri normal jantzitta gustatzen jata.



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta
mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

GoiTB sortu da

Elgetan ezingo da ikusi oraindik. Oñatin, Bergaran eta Antzuolan ez da oraindik ikusiko

Maiatzaren 22an, sortu zen Goiena Telebista. Hasieran, Leintz aldean bakarrik ikusiko da. Beraz, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaioko herritarrek, 35.000 bat lagunek, ikusi ahal izango dute. Ostera, Oñatin, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan, oraingoz, ez dugu ikusiko, baina helburua, udazkenerako GoiTB bailara osora zabaltzea da. Orduan, 65.000 lagunengana helduko da.



ATBk emisioak eten eta GoiTB abiatuko da astelehenean Leintz adarrean.

Domekan izan zen Arrasate Telebistako azken emankizuna. Maiatzak 22tik aurrera, ATB desagertu eta GoiTB jaio zen. Atxabalta Telebistak ere joan zen maiatzaren 5ean lagazion emititzeari. Hango langileak Arrasaten ibili dira egun hauetan ATBko taldearekin elkarlanean.

Goiena Telebistak orain arteko ATBko programazio bera izango du hemendik udara bitartean. Urrian, berriz, parrila berria estreinatuko da, eta saio berriak abiatuko dira. Jadanik, hala ere, hainbat saioren edukiak egokitu egingo dira, aurrerantzean

telebista ez baita Arrasaten bakarrik ikusiko. Zenbait saioren izena ere aldatu egingo da; esaterako, "Mondrasport" izan beharrean, "Goienasport" izango da. Joxe Arantzabal da Goiena Telebistako erredakzio burua. Berak dioskunez, "aldaketa nagusia da hemendik aurrera informazioaren subjektua aldatu egingo dela; jada ez da Arrasate izango, bailara baizik.

Horregatik, azkenaldian bagabiltza bailarako albisteak jorratzen, eta nahiz eta ATB izan, GoiTBri dago-kion albistegia egiten hasiak gara Aste Santuko oporren ostetik. Dinamika horrekin lehenbailehen astea komeni zitzaigun eta horregatik hasi gara sartzen bailara osoko berriak". Honen ondorioz, lan taldea osatu egin zen herrietako berriemaldeen.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

OSTATU
JATETXEA

Gudarien Bide

Tel: 76 80 23

ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.

Karta.

Herrietako berriemak

ARETXABALETA



AMAGOIA LASAGABASTER

23 urte. Atxabalta Telebistako aurpegia izan da hasieratik orain arte, eta hemendik aurrera berak emango ditu Aretxabaleta, Eskoriatzako eta Leintz-Gatzagako berriak GoiTBn. pelikulak, dokumentalak eta teleaioak ditu gustuko.

ESKORIATZA



LOREA AGIRIANO

21 urte. Orain dela lau urtetik "Ze Barri?" Eskoriatzako herri aldizkarian lanean. Kirol saioak, "Bertatik bertara" eta "Caiga Quien Caiga" gustatzen zaizkio. Aurkezleentzako artean, Maddalena Iriarte, Andoni Aizpuru eta Julio Ibarra.

LEINTZ-GATZAGA



AINTZANE GARDOKI

32 urte, arrasatearra, Leintz-Gatzagan bizi da. Urtetan ETBn lanean ibilitakoa da, eta ATBn ere kolaboratzaile lanetan jardundakoa. Gaur egun, "Guganda" saioa aurkezten du ATBn. TVEko bigarreneko gaueko informetiba jarraitzen du.

ARAMAIO



ROSA MONDRAGON

33 urte egitear. "Tu Lankide" aldizkarian egiten du lan. Arrasate Press-en eta ATBn ibilia da -ATBko albistegietako aurkezlea izan zen-. Aretxagaztan ere jardun zuen. ETBko albistegiak eguneroko ikusten ditu.

BERGARA



MONIKA BELASTEGI

28 urte. Prentsa idatzia landu du batik bat: Egunkarian, Argian eta Aretxagaztan ibilia da. Gaur egun, Berrigaran dabil. ATBn ere asteburuetan aritu da. Telebistan, informatiboak ditu gustuko eta aurkezleentzako artean Julio Ibarra eta Andoni Aizpuru.

EMISIO ZENTRUA ETA ORDEZKARITZAK

Goiena Telebistako emisio zentru nagusia Arrasaten dago, gaur egungo ATBren egoitzan. Horretaz gain, hiru ordezkari izango dira: Aretxabaleta, Oñatikoa eta Bergarakoa. Aretxabaletatik jasoko ditugu Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako eta Aretxabaletak bertako berriak; Oñatikordezkarietatik Oñatin sortzen direnak emango dira, eta Bergaratik, Elgeta, Antzuola eta Bergarako berriak. Albistegi nagusia eta gainerako programa gehienak Arrasatek emitituko dira, baina lehen aldi honetan, Aretxabaletatik ere sartuko dira zuzenean albistegian. Udazkenetik aurrera, GoiTB bailara osora zabaltzen denean, Bergarako eta Oñatikordezkarietatik zuzenean sartzeko aukera ere izango da, baina oraingoz, Aretxabaletatik bakarrik.

UNITATE IBILTARI BERRIA

Goiena Telebistak unitate ibiltaria estreinatu zuen maiatzaren 22an. GoiTBko arduradun tekniko Ion Aldanondok esan digunez, hemendik lasterrera "bailarako edozein tokitako gertakariak edo ekitaldiak zuzenean eman ahal izango ditugu unitate ibiltariari esker: kirol emanaldiak, kultur ekitaldiak, herrietako

festak etab.". Dudarik ez da, jauzi kualitatibo ikaragarria ekarriko du honek. Herrietako ordezkarietatik ez ezik, bailarako edozein bazterretatik ere zuzenean emititu ahal izango baita.

Unitate ibiltaria aurreko astean estreinatuko zen. Martitzenetik eguaitzera bitartean, albistegi bereziak egingo dira herriz herri, eta unitate ibiltaria Aramaion, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan izango da informatibo saio bereziok grabatzeko.

ZELA IKUSI GOITB?

Ion Aldanondo jo eta ke lanean aritu da azken aste hauetan herrien arteko loturak egiten. Oro har, esan daiteke, GoiTB ikusteko ez dela etxetako telebista aparailuetan ia aldaketarik egin beharko, Aramaion izan ezik. Orain arte Arrasaten, Aretxabaletan eta Leintz-Gatzaga ia osoan ATB ikusten zen, eta, beraz, astelehenetik aurrera normal ikusiko da herri horietan GoiTB ere. Ez da kanal aldaketarik egin beharko: lehen ATB ikusten zen kanal berean ikusiko da GoiTB. Eskoriatzan, ostera, ez da

Albistegi nagusiko aurpegia



MAIDER OSA

22 urte. 1998ko irailetik aurkezten du ATBko albistegiak, eta, aurrerantzean ere, bera izango da GoiTBko eguneroko albistegiko aurpegia. Orain dela gutxi arte "Astebete" ere berak aurkeztu du. Euskadi Irratian eta Arrasate Irratian ibilia da. "Bertatik bertara" moduko saio bat egingo luke gustura.



Albistegi bereziak herriz herri

GoiTB Leintz adarrean maiatzak 22an sartu zela eta, albistegi bereziak egin ziren aste horretan. Unitate ibiltaria herriz herri ibili zen, eta udaletxe aurrealdeetan grabatuko ziren arratsalde partean, gero iluntzeko albistegietan, 20:00etan, 20:30ean eta 21:00etan emititzeko. Herrietako inguruak erakusteko erreportaje bereziak egin ziren, eta, besteak beste, herrietako alkate eta euskara elkarteetako ordezkariak elkarrizketatu zituzten.

ATB ikusten, baina astelehenetik aurrera GoiTB ikusiko da. Han kable bidez lotuta daude etxeak, eta, hortaz, kablez eta satelitez heltzen dira etxeetara telebista kateak. Aurrerantzean, beste kateekin batera GoiTB ere iritsiko zaie eskoriatzarrei. Telebista seinalea uhinen bitartez helduko da Arrasatetik Eskoriatzaraino, eta behin Eskoriatzan, etxeetara kable bidez. Eskoriatzan, Telesko eta GoiTB, biak ikusiko dituzte, gainerako beste kateekin batera.

Aramaion, azkenik, reemisorre bat jarriko du Udalak GoiTBko seinalea Arrasatetik bertaraino eraman ahal izateko. Aramaion orain arte ATB ikusi ez denez, GoiTB ikusteko telebista aparailuetan Goiena Telebista sintonizatu egin beharko dute: UHF-ko 47. kanalean sintonizatu ahal izango dute GoiTB.

UDAZKENERAKO BAILARA OSORA

Bailara osoko telebista izango denaren zati bat bakarrik hasi da emititzen. "Erraztasun handiagoak izan ditugu Leintz aldera bakarrik zabalteko. Teknikoki samurragoa da, eta inbertsio eta azpiegitura txikiak eskatzen ditu" esan digu Goienako bate-ragile Mikel Irizarrek. Beste bi adarrak, Bergarakoa eta Oñatikoa, abiatzeko inbertsio handiagoak egin beharko dira, eta, horretarako, erakunde publikoekin hitzarmenak lotu beharko dira. "Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin izandako harremanak nahikoa aurreratuta daude, eta dirulaguntzak zehaztu ondoren, udalei proposamen zehatzak egiteko moduan egongo gara" esan digu Irizarrek.

Guztion Ahalegi-ñarekin sortuko da telebista


GOITB gure eskualdian bere seinalea zabaltzen hasi behar da datorren astian, eta pozteko moduan gare debagoienatarrok, alde batetik komunikabide barri bat gure eguneroko eta hurbillen dittugun arazuekiñ arduratuko dalako; bestetik, hau komuni-kabidiau euskeraz izango dalako.

Ez da hutsetik sortu, bide luzia eta esperientzia asko dakaz metatuta. Aspaldittik dare beste herri batzutan telebistan norbere herriko kontuak ikustera ohittuta, Elgetan be laster izango dogu hori aukerioi. Ez litzake txarra uda ostian gure herriko barri pantailla-tik jasotzia.

Beste pausu bat emotera goiaz komunikaziño maillan. Telebista sortu da eta herritarren eskuetan ipini da. Gure baillarako 35.000 biztanlek ikusteko aukeria dake. Gure euskaldun izatiari eutsi gura dotsagu eta bestetik, azkenengo teknologixia erabilli gura dogu hori bidioi egitteko.

Elgetan, Goibekokale sortu zala bost urte pasautxo dira eta horren harittik sortutako Goibeko kultura elkartiak siñatu dau Goienako partaide izatia. Elgetatik egin biharrekuak egiñ eta gero, ia hurrengo pausuak ahalik eta bizko-rreren emoten dittugun eta segiduan GOITB ikusteko moduan garen.

Iban Arantzabal
Goibeko elkarteko lehendakaria



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI



Martitzenean Aramaion grabatu zen GOITBko albistegi berezia.

ARRASATE PRESS

GOITB emititzen hasi maiatzaren 22an

Maiatzak 22an hasi zen emititzen Goiena Telebista. Astelehenetik bari-kura bitartean, albistegi bereziak egin ziren herriz herri. Arrasaten hasi eta Leintz-Gatzagara arte. Arrasaten Uarkape frontoian grabatu zuten astelehenean eta Leintz-Gatzagan, maiatzak 26an, hemen ere bertako pilotalekuan. Gainontzeko herrietan, hau da, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Aramaion, herriko plazetatik egin zituzten albistegiok.

GOITBren Leintzeko adarraren

abiatzea dela eta, informatibo bereziak izan ziren. Hogeita bost minutuko albistegi berezietako zatirik handiena herrietako berriek hartu zuten: alkateak eta euskara elkarteetako lehendakariak elkarrizketatu ziren, eta herrietako irudiak bota ziren. Albistegiak kalean grabatu zirenez, jende ugari hurbildu zen saioak nola egin ziren ikustera. Jakinmin handia piztu du herrietan GOITBren abiatzeak.

Elgetako Udalak bai Goiena egitasmoari

Elgetako Udalak orain dela pare bat aste onartu zuen Goiena egitasmoa diruz laguntzeko Elgetari dagokion zatia. Beraz, Debagoieneko eta Aramaioko zazpi udalek baietza eman diote, dagoeneko, Goiena egitasmoari. Oraindik erabakirik hartu ez dutenak Bergarako eta Oñatiko Udalak dira. Bestalde, Goienak hainbat harreman izan ditu Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariekin. Bi erakundeotan, egitasmoa begi onez hartu dute eta bultzatzeko prest agertu dira, nahiz eta oraindik ezer zehaztu ez den


ETBrekin harremanak Goiena Telebistak

Euskal Telebistak eta Goiena Telebistak, bien arteko lankidetzaz bultzatu eta sentotu nahi dute. Bi erakundeen arteko harremanak oso onak dira eta hartu eman horiek formaldu nahiko lituzke GOITBk. Goiena Telebistak ETBrako berriemal lanak egingo lituzke geure eremuan eta lan hori diruz ordainduko luke ETBk. Bestalde, bi erakundeak lankide izanik, Goiena Telebistak lehentasuna izango luke ETBk soberran izan ditzakeen tresnak eta dekoratuak hartzerako orduan.

Elgetako ferixa nagusiko saio berezia GOITBn

Azoka Nagusiko jaiak gainean ditugu, eta GOITBn ere prestatzen hasiak dira Elgetarako jaiak buruzko saio berezia egiteko. Jaietako ekitaldi azpimarragarrien irudiak hartuko dira eta, horretaz gain, festa giroko imajinak eta herritarren iritziak jasoko dira. ETBko "Jaiak" moduko saioa izango da, irudi erakargarri eta freskoz betea. Ordu erdi edo hiru ordu laurdeneko iraupena izango du. Hortaz, GOITBko unitate ibiltaria eta kamarak jaietan izango ditugu, eta Elgetako lagunak ari-tuko dira aurkezle lanetan.

Programa berezi hau Debagoieneko gainerako herrietako jaietan ere egingo da, eta GOITB hartzen den herrietan ikusi ahal izango da bakarrik. Elgetan ezin izango dugu ikusi, GOITB gure herrian oraindik ikusten ez delako.



Janire Lazkano gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelaldun

Maiatzaren 27an Donostiako Altzako polikiroldegian izan zen finala

Alebin mailako Euskadiko txapelaldun gelditu zen 11 urte betetzear dituen Janire pasa den zapatuan. Bertan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako txapelketan sailkatutako lehendabiziko bostak zuten solik parte hartzeko aukera. Janire Gipuzkoako txapelketan lortutako bigarren postuari esker sailkatu zen Euskadiko txapelketarako. Janirek bi ariketa egin zituen. Lehendabiziko ariketa uztaiarekin izan zen eta bigarrena aparatuturik gabe. Gipuzkoarren nagusitasuna nabaria izan zen txapelketan; lehendabiziko postuak beraientzat izan ziren,

Ipurua G.E. taldearentzat, hain zuzen ere. Taldekako sailkapenean berriz, bigarren geratu da bere taldearekin.

Estatuko txapelketara ez da joango

Euskadiko txapelaldun den arren, ezingo da Estatuko txapelketara joan. Adin hauetan oraindik federaturik gabe daudenez, eskolen izenean joaten dira txapelketa hauetara. Eibarko taldea ezin da joan Ipurua G.E. taldearen izenpean. Gimnasia erritmikoa lantzen duten eskolen izenean joan behar dira. Eibarren bi

ikastetxe daude G.E. lantzen dutenak: Aldatze eta Iturburuko. Janirek Elgetako Herri eskolan ikasten duenez, ezingo da

joan ikastetxe horien izenean, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketara Iturburuko ikastetxearen izenean joan den arren.



Janire erdian beren taldekideekin Altzako polikiroldegian

Lau t'erdiko txapelketan Arantzeta eta Uberall aurrera, Peñalver kanporatua

Bi elgetar geratzen dira lau t'erdiko txapelketan. Peñalver 22-20, emaitzarekin kanporatua izan zen partida ona jokatu ostean. Eñautek ere ongi menderatu zuen bere aurkakoa. Xabierrek ere ez zuen arazorik izan Tirapu kanporatzeko. Piskanaka-piskanaka azken txanpara iristen ari gara eta ea elgetar batek hor aurrean sartzeko aukeraik duen.



Arantzeta, txapelketako lehenengo partiduko sakearen zozketan

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Futbitoko txapelketan sailkapena argituz doa

Adierazgarria atzeratuak dauden partiden kopurua

Finalak jokatzeko hilabeteren faltan, txapelketako erdifinalak jokatu behar dituzten taldeen izenak erabakiz doaz. Bost talde dira txapela irabazteko aukerak dituztenak, Bar

elArco, Vicios, Kiyons, Txapela eta H.H.H.. Gelditzen diren bi taldeak Astapotruak eta Nidiosesalbixek ez dute ia aukerarik. Atzeratuak dauden partiduak direla eta sailkapena

engainagarria dela esan genezake. Talde guztiek ez dute partida kopuru bera jokatu. Momentu honetan Bar el Arco dugu sailkapenburu.



Elgetako gaztetxoek ezustekoren bat emango dute oraindik

SAILKAPENA	I	B	G	P
1-BAR EL ARCO	8	0	2	16
2-VICIOS	7	0	2	14
3-KIYONS	6	1	4	13
4-TXAPELA	5	1	2	11
5-H.H.H.	3	0	5	6
6-ASTAPOTRUAK	1	0	8	2
7-NIDIOSESALBIX	1	0	8	2

Elbarrituendako VIII. kirol jaia Elgetan

Ekainaren 3an, zapatua, egingo dira Elgetan urtero mankomunitateak antolatzen dituen elbarrituendako Kirol olinpiadak. Ekintzak goizeko 10etatik ordubi terdietara egingo dira. Egun hortan ikusi ahal izango dugu gutxitu fisiko eta psikikoek kirola egiterako orduan mugarik ez

dituztela. Bestalde, Eskolarteko olinpiadak Arrasaten izango dira aurten. Aurtengoa XI. kirol olinpiada izango da eta ekainaren 17an izango dira.

Uda kanpaina 2000

Udaletxetik adierazten da uztailean Uda 2000 kanpaina martxan jartzeko asmoa dagoela. Iazko urteekin alderatuz zen-

bait aldaketa espero dira. Alde batetik, haurrendako betiko aukera eta eskaintza izango da; bestetik, gazte jende eta nagusiagoentzat ere zerbait antolatu nahian dabil Udaletxea. Eskaintza zabala izatea espero da: aerobik, mendi bizikleta txangoak, squash eta naturarekin zerikusia duten hainbat ekintza antolatu nahi dira.

Dirulaguntzak

Elgetako hiru kirol taldek jaso dute 2000. urteko dirulaguntza. Dirulaguntza jaso duten taldeak honakoak dira: pilota, txirrindularitza eta saskibaloia. Momentuz laguntzaren %50 eman zaie. Gainerantzekoa memoria eta proiektuak aurkezterakoan ordainduko zaie.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Kulturaren izenean zigortuak

Nola landu gure kultura, zein egitura beharrezko diren, nolako antolamendua... Sarritan hori baino sakonagoak diren **zarraparrak** edo kulturaren barneko balore ezkutuenak haizeztatuko ditugu. Balore ezkutu hauek, gaur egun ere, sorrarazten dituzten ondorio eta bizipenak izango ditugu mintzagai.

Gizarte desberdinen artean, ohitura eta tradiziozko ekintza asko kulturaren izenpean onartzen dira. Hauek dira hiru adibide.

Kirurgia era naturalean. Ablazio- erauzketa edo genitalen mozketa

Gaur egun, 126 milioi emakumek jasan dute erauzketa (urteko 2 milioi izaten dira). Klitoris zati bat moztetik, osoa erauzterainoko ohiturak daude. Gainera, kasu batzutan, honez gain baginaren

ezpain txikiak eta baita handiak ere mozten dizkiete, haragi bizitan utziaz. Josi egiten zaie, pixa eta hilekoarentzako zulotxoak lagaz.

Infibulazio deritzon errito hau egin ondoren emakume hauek ezkontzea ohi da normalena, horrela gizonak, jositako ehunak laban batez mozten ditu harreman sexualak izateko.

Harakinaren antzerkia

Esan beharra dago genitalen mozketa ez dela siniskera musulmanera soilik mugatzen. Egipto, Etiopio, Eritrea eta Nigerian kristauak ere egiten dituzte. Badirudi, talde etniko batzutan, Harri Aroko siniskerak oso errotuta dituztela.

Azpimarragarriak dira Amnistia Internazional-ek emandako datuak: Indiako talde musulmanetan, Indone-

sian, Malasian eta Yemen eta Oman bezalako herrietan burutzen da.

Hau eta z gain, Britainia Handia, Frantzia, Italia, Suezia, Danimarka, Holanda, Kanada, Australia eta Estatu Batuak bezalako herri garatuetan sortzen diren etorkinen komunitateetan mantentzen da erritua. Honen helburua, emakumearen kastitatea eta familiaren ohorea gordetzea da, honek izan ditzakeen ondorioak kontutan izan barik. Adibidez, pixa egiteko zailtasuna, infekzioak, antzutasuna, koitoxa egiterakoan miña, haurdunaldian eta erditzean arazoak.

Orohar, ablazioa sasimediku edo barberu batek burutzen dute. Tresnak esterilizatu gabe beste batekin erabiltzen dituzte kutsadurak kontuan hartu gabe.

Gaur egun, 126 milioi emakumek jasan dute erauzketa.

Klitoris zati bat moztetik, osoa erauzterainoko ohiturak daude



Lepoko letoia

Birmania aldeko "emakume lepaluzea"ren kasua eta Tailandia aldeko neskatilena ez da erauzketa, baina honako hau ere izugarria da. Ilargi betea izanik eta asteazkena jaioteguna, neska jaiotzen diren hurrei lepoan luzaroen ematen zaio masaia. Ondoren 10 zm-ko letoizko eraztun bat jartzen zaio. Bi urtetik behin, masaiak emon ondoren eraztun gehiago jartzen zaizkio bata bestearen gainean, honela 20 zm-tara heldu arte.

Errito honen ondorioak: hezurren haustura, toraxaren hondoratzea, okotza aurreratzeara... Behin egiten hasiz gero sekula ezingo dituzte kendu, burua heusteko indarra galdua dutelako. jarraipenik ere izaten du, hala nola, orkatiletan eta eskuturretan ere eraztunak ipiniz. Guzti honen helburua, senar hobea lortzea da.



Zorionak!!

Hau orrixau eskerrak emote-ko baiño ez dogu egiñ. Urte askuan

Goibekokale aldizka-riko koordinatzaillia izan dan Ana Gillegi ezkondu zan maiatzan 28xan eta berari eskerrak emon gura dotsagu militantzia egindako lanagaittik. Iker bera be denbora tarte baten ibilli zan gurekin lanian eta hori be gogora ekarri gura izan dogu. Zorionak ba, bai Ikerri eta bai Anai.



Beste alde batetik, holako herri txikixetan bodak sekulako jakinmiña sortzen dabe eta jakin badakigu, jente asko batu zala ia zeozer ikusten zeban edo bata zelan jantzitta zoian, edo bestiak... ikusteko. Elgetako plazia beteta zeguan, baiña zelan plazan batutakuek Getarixan pasautakua ikusteik ez zeben euki, honek erretratuok etaratzia pentsau dogu Goibekokalen.

Guk be, Españako barrixak ekartzen dittuan HOLA aldizkarixak moduan, holako lanetan hasi gara. Hau hasieria baiño ez da, zuen eskuetan dago kotilleoko argazkixak bidaltzia argitaratu gura izan ezkeru.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

Jesús Mari Montiel

ITURGINTZA

ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719



KONPONKETAK SUKALDE

ETA BAINUGELETAN



Maisuak sufritzen

Ili biarrekuak, ezin euren lana bete euskera don-tsuoi dala eta ez dala.

Titulu hori leittu eta gero batek baino geixaok pentsauko dau hasi dela berriro be pelma hori bere penak kontatzen, eta asmau eingo dau, horretxetan hasi bia naiz eta. Baina ez dittut nere penak kontauko, inonak baino.

Esan daidan baina, aurrera baino lehen, zeintzuk dien inor horrek: horrek Bizkaiko maisu-maistra gixajo batzuk dira, euskaraz ez dakixelako umiak zelan jaten daben begira egon bihar dabenak, edo antzerako biarrak eitten. Eurak, ikasten hainbeste denbora emondakuak, etorkizuneko umiak biar dan moduan hezitzen ibi-

Artikulu hau leittuta garbi zeuan euskaria dala eta ez dala sortzen zala hori problemioi. Inon ez zeban jartzen, baina garbi entenditzen zan euskara barik holakorik ez zala pasauko. Eta honek danok esateko Bizkaiko arraixa gorridun periodikuan bi orri oso-oririk, ixa-ixa Athletic-ari beste. Artikulu hartan jartzen zeban, gainera, mai-xu-maistra oixajuok egu-

nian hiru orduz euskalte-gira joatera biartuta zego-zela (erruki dotset hango maixu-maistrei).

Han jartzen ez zebana zan lan ordutan eta duan euskaria ikaste-ko aukeria zeukela per-sona haiek, beste inok ez daukana. Eta hala ta be, hain listuak direnok eus-keria ikasteko kapazida-derik ez. Bilinguismoaren alde zeuala esaten zeban batek, baina oarbi itxiz horrek ez daukala inolako zerikusirik berak euskara ikastiakin. Garbi dao per-

tsona honentzako bilin-guismoa euskaldunok erdaraz jakitea dela.

Beste gauza batzuk be jartzen zittuan, baina sutan jarri nintzan eta armosua ez mikazteko alde batera itxi neban hori periodikuoi. Eta orduantxe pentsau neban, gainian dogun Asentzio eguna dala eta Gipuzkoako eskela eta putetxedun arraixa orridun beste periodikuak bihurtu zebala gure Asentzio jatorra San Asensio anormalian. Elgetan bertan be batek baino geixauk pentsauko dau. igual, San eta guzti dotoriaua dala eta horrekin be gauza gutxi ein leike; izan be erre-medixorik ez daukanak erre-medixo gutxi dauka.

Jabier Arantzeta

Bizkaiko maisu-maistra gixajo ba-tzuk, euskaraz ez dakixelako umiak zelan jaten daben begira egon bihar dabe, edo antzerako biarrak eitten

SISTECO
erraminta makina
Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

IÑAKI JATETXEA
Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.
LAN HOTZ
Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.
PANA DE ROKUA JATE TXEA
tel: 768273

KONTXI ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

Tarrapatata, tarrapatata, tarrapatatapatata



Gura giñuan ba tanborradako argazkiren bat etaratzia eta honetxek izan dira lortu dittugunak. 1961 ingurukua da bata eta bestiak be holako urte batekuak dira pare bat urte gorabehera. Uste dogu Andra Marixak izango ziralda orduan eta jakin badakigu tanborradiak arrakasta haundixa eukitzen zebala. Seminarista batzuk etortzen ziran orduan tanborra zelan jo erakustera. Aurten egingo dan tanborradarako Elorrixoko lagun batzuk etorri dira eta pentsatzen dogu sekula ikusi bariko emanaldixa egingo dala ferixa nagusiko jaixetan. Zeintzuk diran jakitzeik ez dogu euki, baiña holakoik ez ete da pasauko hurrengo tanborradan.

Jose Iñaxio Erostarbe, Pello Gorrotxategi, txispaseneko Iñaki... Ez dakitt ezagutuko dittuzuen bestiak. Gu ez gara izan kapazak danen izenak emoteko, zuek?

Nahi giñuke hurrengo alian berriro be tanborradako argazki zaharren bat etaratzia. Hori posiblia izan dein, zuen laguntzia bihar dogu. Badakazue argazkirik etxian? kajoiaren baten egongo da bate-ronbat. Eskertuko giñuke Goibekokalera bialtzia, deittu 943.78.90.85 telefonora.

Etxeko Traste Zaharrak Jasotzeko Zerbitzua

orain sarriago!

DEBAGOIENEGOKO MANKOMUNITATEA



Etxeko Traste Zaharrak jasotzeko Zerbitzuaren EGUTEGIA

- Zerbitzua hilean egun batetik bira pasatuko da Ekainetik aurrera.
- Trasteak jasotzeko egunak hileko 1. eta 3. Ostiralak izango dira
- Jai eguna izango balitz hurrengo Ostiralera pasatuko da.
- **Goizeko 8-ak baino lehenago utzi behar dira trasteak, zaborra jasotzen den tokian.**
- Abuztuan ez dago Zerbitzu hau.

ez ahaztu Goizeko 8-ak baino lehenago



Informazioa
943 79 33 99

EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

IRAILA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

URRIA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					


AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Aldizkari hauetan
guztietan Gipuzkoako foru
aldundia izan
dugu bidelagun.



Gipuzkoako foru aldundiak diruz
lagundutako aldundia